

# BERGARA: GERRAREN HASIERA ETA BONBARDAKETAK



1936ko gerra garaian  
Bergaran izandako gertaera batzuk  
batu ditugu mapa honetan.

Une latz haiek bizi izan zituztenen  
lekukotasunak jasotzen dituen  
ibilbidea dugu hau.

**Gerrako Ahotsak**  
proiektuan jasotako  
testigantzetan oinarritua.

Map data: ©2023 Google / Badihardugu Euskara Elkartea



testigantza eta  
informazio gehiago  
online mapan



## 1 SANTA MARINA EGUNEAN SARTU ZEN GERRA



**Lekukoa: Maria Luisa Arabiourrutia**

Gerraren hasiera oso ondo gogoratzen du. Santa Marina jaiak ospatzen ziren. Emakume talde bat ikusi zuten miliziano jantzita "Viva Rusia" oihukatzen.

## 2 SOLDADUAK HERRIAN



**Lekukoa: Flora Gauba**

Gerra hasi zenean, ama lau seme-alabak hartuta bere jaiotetxera abiatu zen eta milizianoekin topo egin zuten bidean. Elosutik jeisten ari ziren, Elgetarako bidean. Sasoi gogorrak bizi izan zituzten.

## 3 LEHENENGO BONBA LUISEN GAINEAN



**Lekukoa: Edurne Laborda**

Gerra sasoiaren lehenengo bonba Artekalean jausi zen. Kalearen ertzean eserita egoten zen Luis jo zuen bete-betean eta bertan hil zen.

## 4 BONBAK PLAZAN



**Lekukoa: Bittor Aperribai**

Bergaran, bonbardaketak. Algodoneran langile batzuk hil ziren. Kamineroak eta aguazilak guardiak egiten egoten ziren, plazan, eta Leteren aita horrela hil zen, kainoikadak jota. Metraila markak duela gutxi arte egon dira Correosen.

## 5 NAZIONALEN ETA FALANGISTEN INDARKERIA



**Lekukoa: Luis Payros**

Amaren dendako erakusleihoan "Txinda gutxikin gauza asko" ipintzen zuen eta falangista batzuek erakusleihoko esaldia ikusi zutenean, arratsalderako ezabatzeko edo bestela apurtu egingo zutela esan zioten amari.

## 6 BONBAK ETA BABESLEKUAK



**Lekukoa: Edurne Laborda**

Euren etxe ondoan jausi zen bonba bat, baina ez zen kristalik ere apurtu. Hala ere, ganbaran ezkutatuta zuten ikurrina bistaratu eiz zen! Bonbak botatzen zituztenen artean bergararrak ere bazirela eta senideren bat jotzeko beldur zirela dio.

## 7 PARRA TABERNAKO BABESLEKUA



**Lekukoa: Gloria Agirrebeña**

Parrako berri bazuen amak, ezagutzen zituen sotoak. Han ezkututzen ziren gerra garaian. Bost mutil eta bi neska ziren. Batzuk soldadu egon ziren. Ignacio anaia Afrikan ere egon zen.

## 8 EHUNGINTZAKO LANTEGIAK ZABALIK GERRA GARAIAN



**Lekukoa: Inazio Madinabeitia**

Gerra garaian bonbak bota zituzten plazan, eta Algodoneran ere bai. Nazionalak zeuden Bergaran. Anaia ikusmen txarra zeukalako libratu zen gerrara joatetik.

## 9 ANGIOZARREKO APAIZA FUSILATUA



**Lekukoa: Mikel Okina**

Tropak sartu zirenean, kasinoa sakeatu zuten, eta gauzak plazan erre zituzten. Milizianoek Antzuolako sakristaia kartzelatik atera eta hil egin zuten; asturiarrak izan ote ziren. Labaderoan bota zuten gorpua, eta mutikoak ikustera joan ziren.



testigantzak entzun

